

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Iraxeko monasterio zaharraren elizaren barruko hormak eta gangak zaharberritzeko lanak amaitu dituzte

Nafarroako Gobernuaren jabetzako elizaren zaharberritzeak 559.371,64 euroko kostua eduki du.

Ostirala, 2018.eko azaroak 16

Azaroan, Iraxeko monasterio zaharraren elizaren barruko hormak eta gangak zaharberritzeko lanak amaitu dituzte. 2018ko urtarrilean hasi ziren zaharberritze-lanetan, Ondare Historikoko Zerbitzuko teknikariek idatzitako proiektua abiapuntutzat hartuz. Obra horiek Kultura Zuzendaritza Nagusiak- Vianako Printzea Erakundeak finantzatuta daude, 559.371,64 euroekin.



Interior de la iglesia abacial de Irache.

Eliza monumentu historiko-artistiko deklaratu zuten 1877an, eta Donejakue Bidearen markoan XII. mendeko erromanikoaren adibide garrantzitsuenetako bat da. Ikonografiari zein dimentsio plastikoari dagokionez eskultura-katalogo oso bereizgarria dauka, eta arkitekturaren ikuspegitik ere Erdi Aroko artearekiko interes handia erakusten du. Horregatik, Nafarroako erakundeek garrantzia eman diote beti.

Amaitu berri den esku-hartzea lorpen berri bat da azken 40 urteotan eraikina kanpoaldetik zaharberritzeko egin diren ondoz ondoko jarduera publikoen markoan. Lanik garrantzitsuenak elizaren atal hauetan egin dira: burualdea (1976-1982), dorrea (1995-1996), zinborioa eta iparraldeko transeptua (1996-1998), hegoaldeko transeptua (1999-2000), iparraldeko nabearen estalkiak (2000), mendebaldeko fatxada, elizatea edo mendebalderago dagoen barruko atala (2002- 2003) eta gainontzeko nabeen estalkiak (2016).

Hain zuzen, azkeneko esku-hartzean nabeen beste bi atalen paramentuak, gurutzadura eta goialdea, atal horien gangak eta zutabeak garbitu dira. Zikin metatuez gainera, 1941 eta 1942 artean egindako zaharberritze-lanetan erantsi zituzten igeltsuaren, adreiluaren eta juntura berdintzeen behin-behineko konponketak kendu behar izan dira, ez zirelako aproposak barrualdea mantentzeko eta ikusgarritasunerako. Garai hartan, hormetako estalkiak eta haien geruza koloreaniztunak zulatu zituzten, igeltsuarekin eta adreiluarekin zutabe- eta horma-galerak estali

zituzten, eta harlanduen junturak lotu zituzten gaur erabiltzen direnetatik oso bestelakoak diren teknikak erabiliz.

Gurutzaduraren argien gainean ere lan egin dute, arotzeriak berregin dira beharrezko zonetan, inguruko pasadizoak konpondu eta babestu dira, giltzarrien polikromiak garbitu dira eta euskarri batzuetako plintoen eskultura-motiboak berreskuratu dituzte.

Iratxeko abade-eliza

Iratxeko Andre Maria Erreginaren abade-eliza XII. mendearen bigarren erdian hasi ziren eraikitzen gaur egun ezagutzen dugun itxurarekin. Haren ordeztu beste eraikin txikiago bat zegoen lehenago.

Obrak 100 urtez luzatu ziren kasik eta ez ziren hurrengo mendearen hasierara arte amaitu. Lan horietan eskultore-tailer garrantzitsu batek esku hartu zuen. Haiak egin zituzten San Pedro atea, absideetako zurburuen bilduma zoragarria eta zinborioaren kupula eusten duten tetramorfosaren eskultura monumentalak.

Hispaniar erromaniko berantiarren monumentu esanguratsuenetako bat da, eta hobekien mantendu direnetako bat ere bai.



Zaharberritzearen xehetasuna